

2004KO UZTAILAREN 20KO
PRESAZKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta lauko uztailaren hogeian, arratsaldeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, presazko ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Ali-kostes, Xabier Arrasate Aierbe eta Juan Manuel Serna Portugal.

Igor Sarriegi Zumarraga, Xanet Barreras Jauregi, Gorka Lamy Insausti eta Angel Olaso Villalba zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Izaro Gurrutxaga Auzmendik dihardu.

Bertaratutako guztien adostasunarekin, presazko deialdi hau ontzat eman ondoren, bilkurari hasiera eman eta Gai Zerrendako puntu bakarra tratatzeari ekiten zaio.

I.- ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO KONTRATATUTAKO GIZAINTZA, S.L. ENPRESAREKIN KONTRATUA ETETEA.-

Alkateak egun arteko gaiaren aurrerakinen berri ematen du.

Udal honek GIZAINTZA, S.L. enpresarekin kontratua izenpetuta dauka Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua emateko.

Kontratu hau arautzen duen baldintza administratibo partikularren pleguko VIII. puntuan emakidadunaren oinarritzko betebeharren artean "zerbitzua emateak berekin dituen gastuei aurre egitea eta bere ohiko funtzionamentua" ezartzen dira.

Udal honek Gizarte Segurantzako Altxortegi Nagusiaren idatzia jaso zuen 2004ko ekainaren 7an, GIZAINTZA, S.L.ri egun kobratzeko edo etorkizunean kobratzeko izan zitzaizkeen zenbatekoak eta 81.356,60 €ko kopururaino enbargatutzat joz.

2004ko ekainaren 18an ELA sindikatuaren idatziari eman zitzaion sarrera. Idatzi horretan GIZAINTZA, S.L.k Lazkaon lanean dituen 15 langileak ekainaren 29an eta mugarik gabeko izaerarekin greban hasiko zirela jakinarazten zen.

2004ko ekainaren 24an Eusko Jaurkitzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendariak deituta Udal hau eta langileekin bilera egin zen funtsezko zerbitzuak finkatzeko. Bilera horretara GIZAINTZA, S.L. enpresa ere deituta baldin bazegoen ere, hau ez zen agertu. Bilera horretan, langileen greba GIZAINTZA, S.L.k soldatak ez ordaintzearen ondorioa zela adierazi zen.

2004ko ekainaren 23ko datako idatzi bidez Udal honek GIZAINTZA, S.L.ri langileei azken 6 hilabetetan ordaindutako soldaten zuriigarriak aurkez zitzaion eskatu zion. Horretarako emandako epean ez ditu zuriigarri horiek aurkeztu.

2004ko ekainaren 29an hasita Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua ematen duten langileak greban daude.

Guzti honen aurrean, Alkateak berak, 2004ko uztailaren 2ko alkatetzaren ebazpen bidez, honako erabaki hauek hartu zituen:

- 1.- GIZAJINTZA, S.L.k bere langileei 2004ko maiatza eta ekaineko soldatak ez ordaintzea dela eta, Udal honek Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua emateko GIZAJINTZA, S.L.rekin daukan kontratua eteteko eta bermea inkautatzeko prozedura hastea.
- 2.- GIZAJINTZA, S.L.ri 10 egun naturaletako audientzia ematea.

Alkateak amaitzen du esanez, kontratua eteteko prozedura ebazpen honen bidez hasi eta gero, eta Herri Administrazioen Kontratu Legea eta Arautegiak diotena jarraiki, 10 egunetako audientzia eman zaiela bai GIZAJINTZA, S.L. bai abala jarrita daukan Caja Rural de Navarra erakundeari ere eta denboraldi horretan ez bata ez besteak ez duela inolako alegaziorik aurkeztu.

Ondoren Serna (PSE-EE) zinegotziak hartzen du hitza, adieraziz guztiz ados dagoela proposatzen den GIZAJINTZA, S.L.ren kontratuaren etetearekin eta aldi berean esaten du bere babesa agertu nahi diela GIZAJINTZA, S.L.ren langile izan direnekin, azken hilabetean bizi izan duten egoerarengatik.

Estensoro (EAJ) zinegotziak adierazten du Udala prozesuaren une guztian Javier Hernaez abokatuaren aholkularitzapean egon dela, eta gai hauetan oso jantzita dagoena eta bera ere sindikalista izandako pertsona dela. Esaten du ados dagoela bera ere langileek hilabete txarra izan dutenarekin, baita zerbitzua jasotzen dutenek ere, baina asmoa dela ahalik eta azkarren bukatzea eta zerbitzua ahalik eta azkarren berreskuratzea.

Bere harridura agertzen du Estensoro zinegotziak kasu berdina eman delako Bergarako udalerrian, jende berdinarekin, eta han zerbitzua ez delako eten; eta esaten du minduta dagoela Udalak, Alkateak eta Idazkariak jasan duten egoerarengatik, eta zerbitzua jasotzen duten ezinduegatik ere bai.

Alkateak hartzen du hitza orduan esateko Osoko Bilkura honen ondoren bilera egingo dutela GIZAJINTZA, S.L. enpresako langileekin eta egoera zertan dagoen azalduko dietela, aurreko egunean ere egin zuen bezala.

Gaineratzen du Alkateak ohartarazi nahi duela eta aktan jasota geratu dadin nahi duela Udal honetako Idazkariak azken aldi honetan jaso duen tratua ez dela bidezkoa izan. Eta gaineratzen du Udal langileen aldetik ere ELA sindikatuari helarazi diela beraien desadostasuna.

Serna (PSE-EE) zinegotziak esaten du berak ere guztiz bat egiten duela Alkateak esandakoarekin, bai Idazkariari dagokionean eta baita Udal taldeei dagokienean ere, eta hau ere aktan jasota geratu dadila.

Hau guztia kontutan izanda, eta gaia Hazienda eta Pertsonaleko Batzordean informatuta izan ondoren, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua emateko Udal honek GIZAJINTZA, S.L.rekin daukan kontratua eteteko eta bermea inkautatzeko proposamenaren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuz, proposamen hori hala nola GIZAJINTZA, S.L.ri dagozkion kalte-galerak eskatzea onartzea erabakitzen du,

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita bost direnean nik, Idazkari Akzidentalak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.